

## Gure hizkera hobeto ezagutu nahirik **AUXTINA SALABERRIAREKIN HIZKETAN**

**B**adirudi zenbait jende haserretu egiten dela norbere hizkera grabatu eta ondoren idatzirik ikusitakoan, eta ez dut uste hainbestetarako izan behar lukeenik, pozgarria baizik.

Zergatik? Jende desberdinen arteko hizkera-diferentziak aztertu ahal izateko baliagarriak izateaz gain, gure herriko (Lezoko) hizkeraren bereizgarritasunak ezagutarazteko izan beharko luketeelako eta horrela, euskara hobeto ezagutuz eta sakonduz, guztiontzat aberasgarri bilakatuko bait litzaiguke.

Eta bide honi ekin nahirik, elkarrizketaldi hartan Lezoko zaharrena zen emakume bati egin zitzaion elkarrizketa bere gazte denborako pasadizoak kontatuz eta aldi berean, bere hizkera, euskarako klase batetan aztertu asmoz.

Emakume hau AUXTIÑA SALABERRIA zen, 1886ko Maiatzaren 28an Lezon sortua, kale Nagusiko 8an bizi eta bertan zendua, 1988ko Otsailaren 16an.

Elkarrizketa hau bere iloba Olatz-ek egin zion 1980ean edo, beraz, Auztiñak 94 urte zituenekoa da.

Elkarrizketa honetako punturik interesgarrienetakoak aipatzez gero, zera esan beharko genuke; Lezoko ohitura eta usadio zaharren berri damaigula eta hizkeraren aldetik berriz, zenbait galdera «berrori»ka eginak agertzen zaizkigula, hots, zenbait jenderi hain ezezagun zaion hizkeran, alegia. Eta besterik gabe hemen doakizue, dagoen-dagoenean.

**OLATZ:** Zenbat urtekin juten tziñen eskola?

**AUXTINA:** Zenbat? Zenbat zangoittun banik, eztakit, seio bost o, seio... eztakit izango nittuen bost aian, eztakitt. Beintzet amak eskutik artuta emaniniñuen. Ni negarrez ez nuen juanai ta, baitti, bai juango zea, ta artuta maistrai entregatu niñuen amak, t'an utzi.

**O.:** Ta zeintzen maistra?

**A.:** Maistra? Maria Zapiain, Don Antonio semia zuen, e...ta luego obispua zen Kanarieskua.

**O.:** Eta ze ikasten zuten?

**A.:** Dotriña, gurutze ta..., dotriña akutzi ziguten, biño eerki, euskaraz leenbizi kozkortuarte, ta geo aunditzeata, erdaraz, aundiyogua ba, erdaraz. Eta liburu asko ez; Historia Sagrada, miño paretian genittun kuadro batzuek Historia Sa-



gradanak, dena esplikatzekeo geo. Liburotik ikasita geo zeintzien santuak eta ola.; Historia Sagrada, Gramatika, Arimetika... takitt, Ortografia o..., (Jografik ez genuen) ortografia ba, eta geo, Urbanidad libro ttiki bat, oso ttikiya.

O.: Ta zer da oi?

A.: Urbanidad? Akutsitzentzuen zarrak nola errespetatu bier dien, ze, nola zarrago guziyai beorrika, eta kalian suertatzen balinbazen, saludatu, galdatu ondoden, eta eskoittatik eman ber dela zarra. Bee ezkerrea, ta aurretik ez pasa, atzetik, bai. Ola akutsitzentzuen eta, geo genuen beste aunditzen giñanian beste libru asko, a! «La buena Juanita» letzeko, oso... (Patxikunian jakingoute bai, Mariak eta...) «La buena Juanita» aundittuta eta...

O.: Jostea de juatentzen ba, jostear.

A.: Geo, bai; eta lenbizi paja asitzen genuen eskolan eta geo, galtzerdiya akutsitzentzigun maistrak; geo kañamazua, eta geo kañamazua inta, trapu batian ba itten genittuen letrak kañamazuan ta, geo arropetane bai batzutan, miño nik ez, arropetan asko, iñ askoikane, eta geo bordatzen, trapuoyen ta, bainikata ola; eta baita maillane ikasi nuen nik akutsizitten pasaran, eta azke-neko pasaratzen ikasi nuen akutsitzen, mantilla eamateko, pasaran itteko, ta mantilla zar bat amanuen, miño...

O.: Komuniyua nola jantziya ittentzuten?

A.: (Aurreko galderari ez dio kasorik egiten eta eskolako zereginetaz mintzatzen jarraitzen du).

Esangoyot, zeinbeut...; eta libruana eta geo Urbanidade oso polita zen, ttikiya e, dotriña miño pixkat... xio, orri gutxiyokin, dotriñaundixio. Taorduan ikasitako galdera bat ta erantzune bat bakitt, naibauzute baita esane ingout.

O.: Esan!

A.: Esan? Erdaraz da orde!

O.: Igual da!

A.: Igual da?, esangout. Eta... ara, esangoizutepa erdaraz, euskaraz eztakit nik ola oi traduzitzenta, erdaraz esangoizutet, eta zen au, galderau: «Debe de avergonzarse una persona de llevar ropa usada?»

Eta guerantzuna; «No debe de avergonzarse de llevar ropa usada, pero sí de ir sucia y desaliñada, el aseo y la pulcritud embellecen a todas, pero especialmente a la mujer le hacen agradable y simpática y contribuyen a la con-





servación de la salud». Orra, oi orduan ikasiyaut, neska kozkorra nitzala, etzaitt aztul, goguan kat, gustatu ingozitzaitten. (Farringoute). Eta geo aundittuta, esan bezela segittukout; eta eskribitzen gittuen kartak eta. Ura zen pollitta!, kartak eskribitzen jakiñezta..., norme ta rubrika botzene ezta....

O.: Zeñei eskribittu ziyor linbizikua?

A.: A algunamiga o... ola. Amai, launei bati o, izeben bati o, osabai ez niyon ingo, izeben bati ola. Eta geo aundittu giñanian, giñan lenbiziko sesiyuan zaarrenak o aureatuenak eo ola, laubost giñan ta, beste dotriña maistrak akutsi ziguen «Del padre Estete» liburua ta ez genuen guk, maistrak zuen liburu ura, ta ane, elkarren gainka jarri mayan, eta han aitzen giñan dotriñ ura ikasitzen, Padre Estetena, ederra da, oso ederra da. Padre Estete erdaraz.

O.: Geo aundittuta jostea?

A.: Jostea? aundittuta geo jostea juan biarba. Eskolartaik geatu nitzenian amasei urte o nun nik, etamak, jostea! Jostea juanta, antxen.

O.: Illak bizitatzea juan ta...!

A.: E? Geruo!

O.: Igual da!

A.: Oi, asita, eta lemizikun, amak jositzizkitten gona ta txanbra, ta mantalau-rrekuarekin, bai; ta guaiziak eta denak berriyak nittuen, jakiña, titaria ta... denak... ta, bigarren eunian, goaiziak eta titaria galdu! atzea berriz berriyak eosi biar amak!

(Farringoute eskolan...)

Ta, ola, josten ibiliyan, ni bakarrik limiziko ibili nitzan, maistrak etzuen beste iñor eta, biño launak juntatu zitzaizkitten Antxotik eta... Errenteitik... eta ola batzuek, eta gertatu zitzaigun beste gauza; gu joste ibilli giñan tokiyan, atton bat iltzen eta esantzigun maistrak juateko bixitatzea, sartu giñanian juan giñan hiru laun eta errezatu geniyan, miñon, nei txokatuin ala jantziya, bota lustriatu-lustriatuak eta, boina nik eztakitt nola jarriya, nik beiñe iñor ikusi ez ala, ta txokatuiñ, ta nik launai esan... miño farrik gabe esan niyon; «guardasola jarko niyon nik!» Launai txokatu ta farrez asi, ta eskailetan goitti farrez juantzien, ta maistrak, erritan ematea eskaillereta atera eta pentsatu zuten nik esango nuela, esango niyotela zerbatte, oi pentsatuzun arrek, ta bayetz, ta beorrire esango yot; auta au gertatu da, orikusigu ta nik san dut, guardasola falta zula. Eta bea ere farrez, geo beare farrez.

O.: Jayetan ze fiestak itten tzittuzten?

A.: Jaitan zeitten tzen?

O.: Xexenak eta...

A.: Bai, zezenak eta musika o jotzen tzuten biño etziguten utzitzen itxetik (ateatzen), ez giñan beiñe ateatzen gu gabez, sekulan ez. Ta egun batian lumenayuak o, esatentzen orduan, gaur fuego artifiziala, esateia miño, orduan lumerayuak, ta geo, zeotezen ba, ta nik ikusteko gogua, ze ote zen ura ta, zean, kontzejuan



eotentzien barrika zarrak, arduakin ta ibiliyak eta ola, ta zarrak, eta ura plazan erdiyan jarri t'arri suman eta ura sutan; orra fuego artifizialak, zezen suzukuk izango zien! Lezoko zezenko ura, eta nik amai san niyon eta; bueno, biño beraño! betti bakarra!, eta betti jatxi nitzan, ura beida eon nitzan ba, ura erre-tzen, ze ikusi benun... atzea itxea jua. Sanjuan bezpean ta ateatzentzien neskak biño, gu ez giñan beiñe ateatzen, gu ez.

O.: Eta sokamuturrak eta ez al tzittuzten itten?

A.: Sokamuturrak? Ba... Zezenak?

O.: Bai!

A.: Eta zea, barrera bat jartzentzuten goiko eliza juateko eskillerak asteko mutur artan bat, ura jartzentzuten mixintxo eunian, ara señaia, ura ta geo baserrialdea juateko beste barrera, an beste ixkiñan (bankua eo zer da oain!) an beste alakua bat ola sartzeko eurak eta oik... Xexenak ikusten ni ikaratu itten nitzan eta Martxelan ta itxea juaten nitzan zezenak ikustea.

O.: Eskapote intzuen ba bein? Eskapote o, eskalletan gora jua o, zerbatte, ez? Eskalletan gorao etzen jua, eun baten?

A.: Betixua o bai, Sanjuana, betixua menditik etorri!

Zea, Urdaburun..., Bordaberrin tzen zezen bat, eta harrek izena zuen «Guerrero», zezenai ala esaten tziyoten. «Guria mutil kozkorra zela, arri gustatuitenta, arrena zela zezen ura esaten tzun.

O.: Ta arrek eskapoteñ al tzun?

A.: Ez!

O.: Zezenak eskalletan gora ta...

A.: Bordaberriko Pontxio zuen izena, ura etortzetzzen zezenakin.

O.: Baño, zezen bat ez altzen soto batea sartu? soton batea? zezenbat?

A.: Onea? onea?

O.: Plazako itxe batea?

San Juanen o, bai!


A.: San Juanen bai!

O.: Oi ba!

A.: Lezoko bikayua, Zabala iltzen, ta ura balkoyian o seminarista zela, zezena sartu ta korrika jua ta atzeko... orduan atzian itxiak paizien San Juanen, aurretik kalia miño, atzetik mendiya ta, handik ola aterata, ta zezena maindiria muturrian zuela balkoyan o zeatu zen; oya o kuartua izango zen ta...

A...! betizua? ba..., Beste bai e Lezon, betizuak izaten tzien mendiyen, Jaiz-kibelen, eta sagardoteiya, beste taberna gutxi, ezagunak bazien miño, sagardoteiyak, eta estankon bazen sagardoteiyoi eta Hilario, eztakitt ezautukouten; Xabina ta, Urbana ta oyek, Agapita ta... ola zien oyek, ayen atta an izaki sagardoteiyan ta betizuak menditik eskapote in eta kalealdea eldu zela, eta ayek





tokan tokan aiki kamiyuan, gizonak. Eta Xabinan ta attai goatu; burniya atera kamiyotik eta tia, tia... betizuai eta Kopetian jo eta kontuikabe bota zuen. Nik ikusi ez nuen in mino, ala santzuten eta geo lotu ta a(rra)staka eman.

O.: Lezon baltzen bandik leeno?

A.: Bai. Eta diretoria zen lemizikotan Josetxo, organista; Jose Gezala. Eta geo zartu zen, il eta, Hipólito semiak artu zuen.

O.: Baño banda zer tzen, txistulariak edo...? A.: Musika. Bai.

Txintxiña jotzen, Juxto. Eta tanborra eo bonbua jotzen, Jaka.

Ta gañekuan kornetiña batzuek eta..., banittuen nik osabak kornetiña ta bestiak berriz klarinetia ta...

O.: Saxofoya ta...

A.: Sasofoyare baitare. Baitare, denak bazittuzten. Eta holaxe.

O.: Eta kanpoa ta, juten al tzien?

A.: Osaba baganuen itxian, aman anaya, itxian, eta arrek kornetiña jotzen tzuen.

O.: Eta kanpoare juten altzien, o Lezon bakarra jotzen tzuten, eo...?

A.: Ez Lezon jo ez. San Juan bezpean goiko soruan beandu arte. San Juan bezpean jotzetzuten musika beandu arte, gaberdियarte ta ola. Emakume batzuk San Juandik bueltak ematen aitzen tzien, San Juani errezatuko ziyoten o... Bestiak musika jo. Ta gaba geyienak ola pasa ta, goizian beanduan esponjak artu dendatik eta Goiko Errota, esponja ta ura eatea juaten tzien musiko batzuek.

O.: Kanpoa ez al tzien juaten? Bandakuak ez al tzien kanpoa juaten jotzea? Beste herrita?

A.: Kanpoa? Goizueta! Geo banda ura Goizueta juan tzen urtebetian, Ama Birjiña agostukuetan fiestak eta; bezpe-bezpean denak hemendik oñez eta bruuu...!

O.: Goizuetaño? Goizuetaño oñez?

A.: Ba...! ortako juaten tzien...! bide-bideziarretik juaten tzien ta zagiyan lo itten tzuten, gaba pasa.

— Elkarrizketaria: **OIATZ SALABERRIA** —  
— Transkribatzailea: **AGÜXTINA PONTESTA** —